

ARTE EDERREN FAKULTATEAREN URTE BUKAERAKO DEIALDIA

Deialdian hautatutako obra(k) urte amaierako oparitxo gisa erabiliko du (ditu) Fakultateak erakunde, museo, arte zentro eta abarretara bidaltzeko.

Gaia: Librea. Epea: Azaroaren 15era arte.

Dotazioa: 600€.

Aurkezteko tokia: Unibertsitate Hedakuntzako Dekanordetzan.

OINARRIAK:

1.- Lehiaketa honetan parte hartu ahalko dute 2022/23 ikasturtean Arte Ederren Fakultateko edozein gradu eta graduondokotan matrikulatutako ikasleek.

2.- Egile bakoitzak bi obra aurkeztu ahalko ditu, gehienez. Egile piezak bilatzen dira, ez "gabonetako mezuak".

3.- Irudiaren tamaina ez da izango DIN A-4 baino handiagoa.

4.- Lanak Unibertsitate Hedakuntzako Dekanordetzan entregatu behar dira, behar bezala identifikatuta. **Obrak aurkezteko azken eguna: 2022ko azaroaren 15, astelehena.**

5.- Epaimahaiak erabakia hartu eta 15 eguneko epean jaso ahalko dituzte parte hartzaileek hautatu ez diren obrak. Epe hori igarota, Arte Ederren Fakultatea ez da horien erantzule egingo.

6.- Hona epaimahaia osatuko dutenak: Arte Ederren Fakultateko dekanoa, edo horrek eskuordetzen duen dekanordea, bi irakasle eta Arte Ederren Fakultateko Ikasleen Kontseiluko ordezkari bat.

7.- 600 euroko sari bat egongo da (dagokion PFEZa deskontatuta). Hautatutako egileak zenbakitutako eta sinatutako 500 aleko edizioa egingo du. Fakultateak finantzatuko ditu behar diren materialak.

8.- Edizioa dekanordetzan entregatu ondoren jasoko da saria. Edizioa entregatzeko azken eguna, banaketarako prest egonik, 2022ko abenduaren 1a izango da.

9.- Hautatutako obra(k) Arte Ederren Fakultatearen esku geratuko da (dira), eta obraren (obren) erreprodukzio eskubideak izango ditu 500 ale argitaratzeko, baita deialdia komunikatzeko eta zabaltzekoak ere.

10.- Lehiaketan esku hartzeak esan nahi du berekin daramatzan oinarriak ezagutzea eta deialdiaren ebazpena ere onartzea.